

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak, 2020ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuten:

Club Atlético Osasuna 100 urteko historia ospatzen ari da aurten. Futbola 1.900. urtearen inguruan iritsi zen Iruñera, eta, urte batzuk geroago, Sportiva sortu zen, zeina Osasunaren enbrioia izan baitzen. Osasuna 1920ko urriaren 24an eratu zuten kezka politiko eta kulturalak zituzten gazte intelektual batzuek, Iruñeko Kutz kafetegian.

Mende horretan, talde gorritxoak gure erkidegoa ordezkatu izan du, bai estatuko lehiaketetan, bai Europakoetan. Club Atlético Osasunak bere izaera sozialari eusten dio, eta bere bazkideena da; aurten, hain zuzen ere, 20.465 bazkideko errekorra iritsi da bazkide-kopurua.

Jatortasunak, apaltasunak, buru-belarri aritzeak eta harrobiko lanak markatu dituzte Osasuna definitzen duten eta Nafarroako gizarteari berari ere aitortzen zaizkion nortasun-ezaugarriak.

Klubak halaber jakin du garai berrietara egokitzen, eta azken urteotan emakumezkoen futbolaren aldeko apustua egin du, gizarte-eskaerari eta beste kirol-talde txikiago batzuk jada egiten hasiak ziren ahaleginari erantzunez. Hain zuzen ere, aurten, “Rojos” liburuaren argitalpenari esker, jakin

dugu 1932an jada saiakera bat egin zela Osasunan emakumeen talde bat osatzeko.

Orobat, klubaren lorratz soziala oso garrantzitsua izan da, ekintza sozial ugarian parte hartu eta elkarte nahiz enpresekin lankidetzan jardun baitu. Nabarmentzekoa da desgaitasunak dituzten pertsonak osaturiko Osasuna Genuine taldearen alde egin duen apustua ere.

Ehun urte dira, bihotzondokoekin, gorabeherekin, poz eta saminekin, baina gaur egun zutik dirauten nortasun-ezaugarriekin, hala gure erkidegoan nola kanpoan ere antzemanak direnak.

Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du Club Atlético Osasunak bere 100 urteko historian eginiko ibilbidea eta aintzatetsi egiten du Club Atlético Osasunak gure Komunitatearen historian duen garrantzia.

Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespen eta esker ona adierazten dizkie Osasunarekin zerikusia izanik klubaren ospea eraikitzen lagundu duten pertsona guztiei, bai eta 100 urteko epe horretan klubaren biziari eutsi dioten bazkide guztiei ere.

Nafarroako Parlamentuak beharrezko deritza kiroleko berdintasunaren alde jarduten segitzeari, emakumezkoen kirolaren aldeko apustua eginez, zeinetan Club Atlético Osasunak urteak baitaramatza Nafarroako beste klub batzuekin lanean.

Nafarroako Parlamentuak estimatu egiten du

desgaitasunak dituzten pertsonei zuzenduriko kirol inklusiboaren alde apustu egitearen garrantzia, Osasunak bere *Genuine* taldearekin balioan jarri duen bezala.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren domina Club Atlético Osasunari ematea hura fundatu izanaren mendeurrena oroitzearen kariaz, eta aitorturik haren kirol-ibilbide peto-petoa, bai eta Nafarroak betidanik bereizgarri izan dituen jatortasun, pluraltasun eta apaltasunaren balioak jantzirik eramate hori ere.

2. Erabaki hau Club Atlético Osasunako lehendakari Luis Sabalza Iriarte jaunari helaraztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean.

LEHENDAKARIA

Unai Hualde Iglesias

